

ESKUORRIA: LH

IRAKASLE BERRIARENTZAT ESKUORRIA

EGITURA

1.ZIKLOA: hazten (6-9)

Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailek osatuko dute. Ikastolen elkartearen hEGIN proiektua izango du abiapuntu.

2.ZIKLOA: heltzen (10-12)

Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailek osatuko dute. Lehen Hezkuntzako etapa amaitu aurretik eskuratu beharreko konpetentzia minimoei erantzutea izango du helburu.

LH - EGITURA	
1.ZIKLOA HAZTEN	LH 1. maila <ul style="list-style-type: none"> • Zubi-lana HHrekin • 1. mailako tutore espezialistak • A tutorea
	LH 2. maila <ul style="list-style-type: none"> • B tutorea
	LH 3. maila <ul style="list-style-type: none"> • B tutorea
	Taldekatze berriak / Balizko errepikapenak aztertu
2.ZIKLOA HELTZEN	LH 4. maila <ul style="list-style-type: none"> • C tutorea
	LH 5. maila <ul style="list-style-type: none"> • C tutorea
	LH 6. maila <ul style="list-style-type: none"> • Zubi-lana DBHrekin • 6. mailako tutore espezialistak • D tutorea

IKUSPEGI PEDAGOGIKOA

HAZTEN

METODOLOGIA

Haur Hezkuntzan hasten den Konfiantzaren Pedagogiaren bideari jarraipena ematen diogu LHn ere. Alde batetik, ikasleak era autonomoan aritzeko uneak eta guneak diseinatu ditugu, erabakiak hartzen eta euren burua erregulatzen ikas dezaten. Bestetik, irakasle taldeak proposatutako proiektuak, taldeka zein bakarka, gauzatu beharko dituzte euren ikasketa prozesua garatzen laguntzeko helburuz

EBALUAZIOA

Ikaslearen heziketa prozesua kompetentzietan ebaluatuko da. Ikasturtean zehar bi informe jasoko dira ikasleen lorpenak, garapena eta hobetzekoak islatuz. Informe idatzi hauek Inika bidez komunikatuko dira, bata urtarrilaren azkeneko astean eta bestea ekaineko azken eskola egunean.

Ondokoak dira informean ebaluatuko diren kompetentziak, definizio xume batez lagunduta:

Norbera izaten ikasteko kompetentzia: beharrezkoa da gizabanakoei baliabideak ematea beren nortasuna eraikitzen laguntzeko eta pertsonak duen potentzialtasuna ahalik eta gehien garatzeko.

Elkarbizitarako kompetentzia: pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan parte hartzea da, gainerako pertsonari aitortuz nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia: ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, ikasitakoa erabili eta beste testuinguru eta egoera batzuetara transferitzea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.

Ekimenerako kompetentzia: ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausart eta eraginkor kudeatzea da.

Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia; euskara: euskarazko hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz komunikatzeko.

Hizkuntza eta literatura komunikaziorako kompetentzia; ingelesa: ingelesezko hitzezko eta idatzizko testuak erabiltzea da, ingelesez, bizitzako egoera guztietan egoki, eraginkortasunez eta hizkuntza aniztasuna errespetatuz komunikatzeko.

Matematikarako kompetentzia: jakintza matematikoa erabiltzea bizitzako beharrezkoen dagozkien arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta horiei erantzuteko.

Zientziarako kompetentzia: zientziaren jakintza eta metodologia modu koherente, bidezko eta zuzen batez erabiltzea testuinguru esanguratsuetan sistema eta fenomeno naturalak interpretatzeko, errealitatea ebidentzia zientifikoaren argitara ulertzeko eta erabaki arduratsuak hartzeko bizitzaren esparru eta egoera guztietan.

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia: nor bere burua, norberaren taldea eta bizi duen mundua ezagutu eta ulertzea da, gizarte zientzien jakintzak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz.

Arte komunikaziorako kompetentzia: hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta modu kritikoan balioestea. Era berean, arte-hizkuntzak ezagutzea, eta haien kodeak erabiltzea arte-mezuak ekoitzi eta nor bere burua ekimenez, irudimenez eta sormenez adierazi eta komunikatzeko.

Kompetentzia motorra: norberaren eta gainerakoen jardun-eremu motorreko egoerak sormenez eta adierazkortasunez lantzea. Jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarri batean oinarrituta, ongizate osoa lortzen laguntzeko.

HELTZEN

METODOLOGIA

Ondorengo ezaugarri bereizgarriak ditu oinarrian Heltzen zikloko metodologiak:

Euskal Curriculumua du oinarri. Pertsonaren garapen osoa eta integrala bilatzen du: geure gurea den euskal kultura espezifikoaren eta kultura unibertsalaren oinarriak eskuratu, ondorengo ikasketak egin eta lan munduan aritzeko eta bizitza osoan zehar ikasten jarraitzeko.

Pertsona eredia du helburu. Maila bakoitzean ikasleak bereganatu behar dituen ezagutzak, gaitasunak eta konpetentziak zehaztuta daude. pertsona ereduaren arabera eraiki da hezkuntza-prozesuaren curriculum osoa.

Oinarrizko konpetentzia orokorrak ikas-arloetan lantzen dira. Ez da nahikoa jakintza akademikoa eskuratzea. Edozein bizitza-egoeratan trebea izatea lortu behar du ikasleak; pentsatzen eta ikasten, komunikatzen, elkarrekin bizitzen, norbera izaten eta egiten eta ekiten jakin beharko du.

Integrazioaren pedagogia du ardatz. Egoera erreal baten aurrean, ikasleak egoera horretan behar dituen baliabideak bilatzen eta erabiltzen ohitu behar du; bakarrik nahiz talde-lanean, irtenbideak aurkitzen saiatu behar du, eta ikasi duena egoera berrietan baliatu.

Ikaskuntza kooperatiboa bultzatzen da. Taldean lan egiten dute. Ikaskuntzan oinarritutako esku-hartzea bultzatzen du. Lankidetzak konpartitua da helburu, eta, horretarako, kide bakoitzaren rolak aldeztu aurretik zehaztuko dira.

Euskararen ardazturiko eleaniztasuna garatzen da. Hizkuntzen trataera integral eta integratua garatzen du, euskararen ezagutza eta egoera bakoitzak eskatzen duen erabilera egokia ziurtatuz.

EKI MATERIALA

EKI proiektua ikasmaterial berria i eta berritzailea da. Euskal Curriculumua garatzen du, konpetentzietan oinarrituta integrazioaren pedagogiaren bitartez.

Unitate didaktikoaren garapena

Bost unitate didaktiko ikasturteko. Unitate bakoitza hiru fasetan banatzen da:


1. Diziplinarteko hasiera fasea.
2. Arlokako sekuentzia fasea:
 - a. Euskara
 - b. Ingurunea
 - c. Matematika
 - d. Gaztelania
 - e. Ingelesa
3. Diziplina arteko amaierako fasea.

Arlokako sekuentzia fasea, era berean, beste hiru fasetan banatzen da:

1. Hasiera fasea: Zer, nola eta zertarako? Egoeraren aurkezpena egiten da.
2. Garapen-fasea: Edukiak eskuratzen dira eta hasierako egoerari aurre egiten zaio.
3. Amaierako fasea: Egoera berriei aurre egiten zaio.

Ikasleen pertsona eredura hurbiltzeko konpetentzietan egiten ari garen lanketa dela eta EKI-k proposatzen dituen unitate didaktikoak aintzat hartuz hauek osatze aldera aldaketa batzuk egiteko erabakia hartu dugu.

Ikasturtean zehar, EKI-ko liburuek eskaintzen dizkiguten baliabideez gain, aurrebaluazioan identifikatu eta indartu beharreko atalak txertatuko ditugu. Hori ahalbidetzeko, diziplinarteko hasierako eta bukaerako faseak ez ditugu egingo eta arloko proiektuetan jarriko dugu indarra.



EBALUAZIOA

Unitate bakoitzean arlo ezberdinek bere eduki eta konpetentziak dituzte. Ondoren, unitatearen bukaeran, landutakoa zerbait gauzatzeko erabiliko dugu, honela unitatean zehar ikasitako mobilizatu eta trasferitzeko aukera izango dutelarik.

Arlokako fasean

- Arlokako garapen faseko jarduera batzuk erabiliko ditugu ebaluatzeko. Hoietatik aparte, irakasleek material berria sortu dugu unitatea osatzeko.
- Arlokako amaiera faseko proiektuek hartuko dute garrantzia, bertan garapen fasean ikasitako guztiaz baliatuz erronkari aurre egin beharko diotelarik, honela konpetentzia ezberdinak eskuratuz.

Auto erregulazio jardueren garrantzia azpimarratu nahi da. Jarduera horien bitartez ikasleak bere burua ebaluatu behar du, eta dituen indarguneez eta ahuleziez jabetzeko aukera izango du. Honetaz gain, burutu duen erronkarekiko hausnarketak ere egingo ditu, metakognizioa bultzatuz.

Laburbilduz: zer eskaintzen digu EKI proiektuak?

- Konpetentziak lantzen ditu, arloari dagozkionak zein zeharkakoak.
- Proiektuak baliatzen ditu ikasitakoa mobilizatzeko.
- Autonomia eta ikaskuntza aktiboa lantzen da, ikaslea da protagonista.
- Ikasketa kooperatiboa lantzen da.

IRAKASLEEN FUNTZIOAK

- Ikasleen ikasketak orientatu eta gidatzea.
- Irakasle edo tutore taldeak landutako tutoretzako planak garatzea.
- Bere ardurapean dauden eta premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko curriculum egokitzapenak eta heziketa-lan bereziak koordinatzea, Heziketa Bereziko irakasleen laguntzaz.
- Ikasleei taldean eta eskola bizitzaren osotasunean integratzen laguntzea eta ikasle horiengan parte hartzeko gogoia piztea.
- Bere etapako tutore eta irakasleekin koordinatzea.
- Ikasle eta irakasleen arteko harremanak hobetzeko eta arazoak konpontzeko bitartekari izatea.
- Bere ardurapean dagoen taldeko ebaluazio-prozesua koordinatzea eta gainerako irakasleen informazioa bilduz, bere ikasleen promozioa erabakitzea.
- Ikasturte hasieran ikastaldeko ikasleen gurasoekin biltzea ikasturteko planifikazioaren berri emanez. Era berean, ikasturte amaieran urteko balantzearen berri emateko.
- Urtean behin ikasleen hezkuntza prozesuaz gurasoak informatzea. Honez gain, tutoreak zein gurasoek beharrezkoa ikus dezaketen guztiekin.
- Arazoak aurreikus daitezkeenean edota gertatu direnean, gurasoekin elkarriketatzea, konponbidea jarritz.
- Zuzendariak eskatzen dizkion eginkizunetan laguntza eskaintzea. Zuzendaritzaren kolaboratzaile izatea bere arloetan.
- Ikasleen informea egitea.

ETAPAKO ORGANIGRAMA

LHko zuzendaria		
1.ZIKLOA HAZTEN	Hazten zikloko koordinatzailea	-Tutoreak -Irakasle espezialistak
	Hazten zikloko erreferente pedagogikoa.	-PT -Hezitzaileak
2.ZIKLOA HELTZEN	Heltzen zikloko koordinatzailea	-Tutoreak -Irakasle espezialistak
	Heltzen zikloko erreferente pedagogikoa.	-PT -Hezitzaileak
Orientazio departamentua		
-Orientatzailea -PTak -Hezitzaileak		

ETAPAKO ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA